

## “HUMANISMO IMPERIALISTAREN BESTE AURPEGIA

Otsailaren 23an laguntza humanitarioz mozorrotutako Venezuelaren aurkako saiakera kolpista egin zen. Hasieratik asko izan ziren trikimailu horren atzean ezkutatutako asmo ankerrak salatu zituzten ahotsak. Saiakerak huts egin zuen. Ordutik entzundakoek eta ikusitakoek berretsi egin dute eskusartze horren asmo iluna. Hona hemen horietako batzuk.

- **Nagusiaren ahotsa:**

“Bere ekonomiaren kolapsoaren esperoan gaude” (Eliott Abransek esana Venezuelako kantziler Jorge Arreazari, kanadako kazetaria den Eva Barlettek argitaratu ekarritako elkarrizketa pribatu batean). “Venezuela argirik eta urik gabe uztea lortzen ari gara... eta laister, Madurorik gabe” (Mike Pompeo Estatuko idazkariaren hitzak). “Herrialdearentzat irtenbiderik hoberena kolapsoa bizkortzea da, nahiz eta hilabete edo urte batzuz Venezuelako herritarrek gehiago sufritu” (William Brownfiel, Estatu Batuetako enbaxadore ohia Venezuelan).

- **Venezuelako txotxongiloen ahotsa:**

“Guretzat, hildakoak ez dira kostuak, etorkizunerako inbertsioa baizik”. “Honek laguntzen badu jende horren burmuinetik erokeria ateratzen eta zentzatu daitezten, ongi dago”. (Juan Guaidó). “Ongi dago kamioi zisternei ura banatzen ez uztea horrek Gobernuak erausteko balio badu” (Geraldina Colotik jasotako opositorik venezolar baten iritzia). “Oposizioak festa egiten du ospitaleek ez dutelako funtzionatzen eta botikaririk ez dagoelako, pozik egoteko arrazoiak balira bezala” (Diosdado Cabello).

- **Hitzetatik ekintzetara:**

- Kale blokeatzeak: guarinberoek ura herritarrei eramaten dieten kamioiak akosatzen dituzte.
- Venezuelako Gobernuak aireko hornikuntza sare bat osatu behar izan du merkantziak garraiatzen dituzten barkuak epe mugagabez atxikitzen dituztelako eskala egiten duten portuetan.
- Santzio berriak, Estatu Batuen Ogasun Sailak hauei inposatuak: Pdvsako 34 kargaontziri, Ballito Shipping Incorporated empresari (egoitza Liberian daukana), eta ProPer In Mngement Incorporated empresari (egoitza Grezia daukana) Venezuelako petroleoa Cubara eramaten duena.
- Hirugarrenei presioak. John Bolton Estatuko idazkariak Josep Borelli exigitu dio Venezuelan lan egiten duten 94 enpresaren (tartean Repsol) aurkako santzioetan parte har dezan.

- **Ahots iparamerrikarrak sadismoari mozoroo kentzen:**

“Santzioen politika krudela da” (The American Conservative). “Politika honek eragin beldurgarriak izango ditu” (New York Times). “Estatu Batuen ekintzek Venezuelan krisia sakontzea, sufrimendu gehiago ekartzea eta nazio-mailan indarkeria pizteko aukerak handitzea baino ez dute lortu” (Intelligentziaren Aldeko Beterano Profesionalen Taldea).